



IKASTOLAKO BARNE BEKA PROGRAMA

2019/20 ikasturterako Ikastolako barne beka programarako eskabideak aurkezteko epea zabaldu dugu maiatzaren 22ra arte. Zailtasun ekonomikoen ondorioz hileroko ordainagiriak ezin ordaindurik dabiltzan familientzako barne laguntza programa da eta Ikastolako maila guztietara zuzendua dago.

ELKARTASUN SISTEMA

Izan ere, programa honen bitartez, eta bazkide guztien ekarpenekin, kuota ezin ordaindurik aurkitzen diren familiekin elkartasun sistema bat osatu nahi da. Hortaz, banatzen den hornidura hau bazkide guztien ekarpenekin osatuko da eta eskaerak erantzukizunez bideratzea eskatzen zaie bazkide guztiei.

Laguntza hauetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa da Eusko

Jaurlaritzako bekaduna izatea. Laguntzen gehieneko zenbatekoa, aurrekontuak ahalbidetuz gero, Jaurlaritzak emandako beka eta Ikastolako kuotaren zenbatekoaren arteko diferentziaren %50ekoa da.

Egoerak hala eskatuz gero, eskaera kopuru handia bilduz gero adibidez, baremazio zehatzagoa bideratzeko aukerak aztertuko dira.

LARRIALDI EGOERAK

Osasun alertak eragindako larrialdi egoerak kontutan hartzeko ahalegina ere egingo da aurtengo deialdian. Horretarako, aparteko eskaerak aztertuko dira, kasu hauetan ahalik eta argibide gehien eranstea gomendatzen dugularik, errenta maila egiaztatzeakoak zein bestelako egoerak argitzeakoak.

**beka
eskatu**



KUOTAK EPEKATZEKO EDO GERORATZEKO AUKERA

Apirilaren 8an Artzkaritzaren komunikazioan Ikastolako kuotak epekatze edo geroratzeko zabaldutako aukera irekita mantenduko da aurrerantzean.

Aukera hori baliatu nahi duten familiek ondorengo formularioa bete beharko dute edo Idazkaritzarekin komunikatu 94 672 67 37 telefonoan edo laudio@ikastola.eus posta elektronikoren bidez.

eskaera egin

